

## Euskal zinemak protagonismo handia izango du Donostiako Zinemaldian

Sail ofizialetan aurkeztuko diren 21 pelikulez gain, euskal ikus-entzunezkoaren enpresa ugari biltzen dituen Basque Audiovisual markak zinema proiektuen katalogoa banatuko du. Era berean, euskal zinemagileei zuzendutako hainbat jarduera burutuko dira zinema jaialdiaren baitan.

Euskal zinemagintzak Donostiako Zinemaldian protagonismo handia izango du. Sail ofizialetan lehiatuko dira jaialdian eskainiko diren 21 ekoizpenetako batzuk, besteak beste Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *La trinchera infinita*. *Loreak* eta *Handia* filmen autoreek Urrezko Maskorra jasotzeko aukera izango dute aurtengoan ere, Antonio de la Torre eta Belen Cuesta aktoreekin filmatutako Espainiako Gerra Zibilean oinarritutako pelikularekin. Zuzendari Berriak sailean aldiz, Maider Fernandezek Ikusmira berriak egoitza-programan gauzatutako *Las letras de Jordi* aurkeztuko du, zuzendariak garuneko paralisia duen gizon batekin duen harremanari buruzko filma.

Bestalde, Kimuak programako bi film labur lehiatuko dira Zabaltegi-Tabakalera atalean: Chema Garcia Ibarra eta Ion Sosaren *Leyenda dorada* eta Izibeñe Oñederrak zuzendutako *Lursaguak / Escenas de vida*. Sail berean ikusi ahal izango da ere *Urpean Lurra* Maddi Barberen film ertaina, eta Culinary Zinema atalean, euskal gastronomiari buruzko hiru dokumental eskainiko dira: Iñaki Artetaren *Bittor Arginzoniz. Vivir en silencio*, Mikel Urretabizkaiak zuzendutako *Gazta* eta Igor Arabaolazaren *Zer jan hura izan*. Gainera, ezin dugu ahaztu *Kowalski Films* euskal ekoiztetxeak koproduzitu duela Canneseko zinema jaialditik pasa ondoren Perlak sailean egongo den Oliver Laxe galiziar zinemagilearen **O que arde** pelikula. Horrez gain, *Aupa Etxebeste!* film arrakastatsuen sekuela, *Agur Etxebeste*, Euskal Zinemalaren Galan ikusiko da eta Miguel Angel Jimenezek zuzendutako *Una ventana al mar*, EITB-ko galan. Bukatzeko, garapenean dagoen *Txintxua Films* produkzio-etxeko *Karmele* proiektua Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan aurkeztuko da, eta Zinemira sailak euskal zinemagintzaren aberastasuna islatuko du hamar pelikula eskainiz.

Aurten estreinatu diren euskal filmak, nahiz garapenean daudenak, nazioartean ezagutzera emango dira Basque Audiovisual katalogoaren bitartez. Bertan, **70 proiektu** zinematografiko bilduko dira, horietako 31 garapen-fasean, 15 produkzio-faseren batean eta 2019an zehar amaitu eta/edo estreinatu diren gainontzeko 24ak. Guztira, argitalpen horretan **50 euskal ekoiztetxeren** lanak jasoko dira: Abraprod, Amania films, Area audiovisual, Arena comunicación, Baleuko, Basque Culinary Center, Basque films, Brisney, Dibulitoon, Doxa

# BASQUE AUDIOVISUAL

producciones, Dynamite films, Emana films, El buen sitio, Fascina, Fase 3, Fragil zinema, Gariza films, Gastibeltza filmak, Hiruru filmak, Hiruki films, Ikusgarri films, Irusoin, Izar films, Kinoskopik, Komiki films, La escena del jardín, Lago & Laporta, Lamia producciones, Leize producciones, Limbus filmak, Lotura films, Lumiere produkzioak, Maluta films, Media attack, Nadie es perfecto, Olde-Andoni Murua Maiza, On produkzioak, Pimpi & Nella films, Prima Luce, Salto de eje, Sendeja films, Setenta invisibles, Sincro producción, Sonora estudios, Sr & Sra, Taui media, Trepamuiros, Txintxua films, Zazpi t'erdi eta Zinema varietes. Zineuskadiren, Etxepare Institutuaren eta Eiken Klusterraren lankidetzari esker euskal zinema nazioartean ezagutzera emateko sortu den marka honek [www.basqueaudiovisual.com](http://www.basqueaudiovisual.com) webgunea martxan jarriko du laster, Euskadiko koprodukzio markoaren inguruko informazioa zabaltzeko.

Koprodukzioen gaia jorratuko dute Zinemaldian zehar burutuko diren zenbait jarduerak, horien artean ***Glocal meets Scotland*** topaketak. Screen Scotland erakundeak irailaren 24an antolatutako hitzorduak gaelikoan lan egiten duten profesionalen eta Europako hizkuntza ez-hegemonikoetan filmatzen duten ekoiztetxeen arteko elkarlana bultzatzea izango du helburu, euskal zinemaren industriako enpresak tarteko egongo direlarik.

Bestalde, euskal emakume zinegileen pisua eta ikusgaitasuna indartzea helburu duen Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Zineuskadik bultzatutako ***NOKA Mentoring*** programa amaitzeaz da, urtean zehar gauzatutako mahai-inguruen eta prestakuntza saioen ostean. Parte-hartzaileak irailaren 25ean bilduko dira bazkari informal batean. Bertan, Tamara Lucarini programako partaidearen ***El peso*** ekoizpena Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroan parte-hartzea ospatu ahal izango dute.

Foro honetan ikusi ahalko dira ere beste lau euskal ekoizpen: Iban Ayestaren ***Amores trashumantes***, Gerard Escuerrek zuzendutako ***Bromo: el agente Gernika***, Diego Urruchiren ***El río de la vida*** eta Juan Gautierren ***Shooting for Mirza***.

Azkenik, euskal zinemaren profesionalak Zinemaldian duten protagonismoa eta sektorearen hazkundera ospatzeko bilduko dira irailaren 24an Zineuskadik antolatu duen koktelean.

## Informazio gehiago:

Jara Ayucar

[komunikazioa@zineuskadi.eu](mailto:komunikazioa@zineuskadi.eu)

+34 636 806 221